



# Osasuna eta Hizkuntza VI: Hizkuntza beharrak arreta soziosanitarioan



Aniztasunean bat: hizkuntza beharrak arreta soziosanitarioan.

**Uzt. 06 - Uzt. 07 2023**

**Kod. 010-23**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2023

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Uzt. 06 - Uzt. 07 2023

**Kokalekua**

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

**Hizkuntzak**

Euskara

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**



## Azalpena

Mundu osoan ele eta kultura aniztasuna dira nagusi, 7.000 bat hizkuntza mintzatzen direlarik. Hizkuntza-aniztasuna gizadiaren berezko ezaugarritzat har daiteke. Hartara, ez da medikuntzarekin zerikusirik ez duen arloa edo hizkuntzalariei soilik dagokien jakintza-esparrua. Aitzitik, hizkuntza-aniztasunak bete-betean eragiten dio osasungintzari. Osasun arretaren helburua jendearen osasuna zaintzea delarik (bai norbanakoarena bai taldearena), pertsona edo jendarteak ulertzea ezinbestekoa da. Ingurune eleaniztun batean murgilduta, osasun arloan hizkuntza erronka globala dela esan daiteke, profesional eta erabiltzaileen arteko harremanei eragiten dielarik, izan etorkinak edo eremu urriko hizkuntza baten hiztunak.

Hizkuntzaren gaia arrunt ezberdina izan daiteke, tokian tokiko kultura, egitura politiko, ekonomiko eta hiztun-komunitatearen arabera. Hori horrela, aztergaia baldin bada hizkuntzak osasun arretan duen garrantzia eta, aldi berean, erronka horri aurre egitea, dagokion osasun sistemaren jatorria, izaera, balioak, ezaugarriak, antolakuntza eta egitura ezagutzea ezinbestekoa dela esan daiteke, plangintza eraginkorrak proposatu nahi badira. Ildo horretan adierazi den moduan, eskura dagoen ebidentzia askotarikoa da, sakabanatuta eta jatorri ezberdinetakoa. Horrenbestez, leku batean proposaturikoa ezin da beste eredu edo inguruetan nolani ere ezarri. Hauxe da, hain zuzen ere, 'Osasuna eta Hizkuntza' Uda Ikastaroetan azken urteetan landu duguna, Euskal Herriko eta nazioarteko adituek parte hartu dutelarik.

Herrialde askotan bai hiztun-komunitateek bai erabiltzaileek ez daukate inolako hizkuntza-eskubiderik, eta arreta sozio-sanitarioa hizkuntza nagusian soilik jasotzen dute. Beste hainbat lekutan lege-esparruak euren hizkuntza-eskubideak babes ditzake, baina sarri maila teorikoan edo erretorikoan. Badaude, egon, tokian-tokiko hizkuntza-politikak, hizkuntza-plangintzak eta arreta soziosanitariorako beren-beregizko ezarpen-programak, baina benetan eraginkorrak al dira? Azken urteetan sortu eta jaso den ebidentzia eguneroko jardunean egitate bilakatzen al da? Erabiltzaileen hizkuntza-beharrak asetzen al dira?

Uda Ikastaro honetan mundu osoan proposatzen ari diren plangintzak aztertuko dira, hala nola euren ezarpena eta ebaluaketa, abiapuntua eta ardatza hizkuntza-beharrak izanik.

Hizkuntza-beharra hauxe litzateke: osasun jardueran, hau da, paziente orok osasun-prozesu osoan (etxean, osasun zentroan edo ospitalean; lehen mailako arretan zein espezializatuan), kalitatezko zerbitzua (onargarria, segurua, iriskorra, eraginkorra, ekitatezkoa eta sostengarria) jasotzeko behar duen hizkuntza zerbitzua, edo zehazkiago, osasun langileekiko eta erakundeekiko harremanetarako behar duen hizkuntza. Kontuan hartuta hizkuntza gaitasunak zein komunikaziorako beharrak aldakorrak izan daitezkeela bizitzan zehar edo osasun-egoeraren arabera, hizkuntza beharrak ez dira homogeneousak, norbanakoaren eta egoera klinikoaren arabera baizik. Hizkuntza-behar horiei erantzun egokirik ez ematea kalteak eragin ditzake eta, beraz, zerbitzuaren kalitatea oztopatu. Horrenbestez, osasun langileen eta osasun erakundearen erantzukizuna litzateke behar horiek identifikatzea, hala nola dagokien erantzunik egokiena ematea.

Aniztasunean bat, ezberdintasunak bilduz, hizkuntza-beharren kontzeptua uniberttsala dela esan daiteke, baina beharbada ez homogeneousak. Nola norbanakoaren hizkuntza-beharrak aldakorrak diren, hala nazioartean. Horren adibide, segurtasun kulturalaren ereduak aipa daitezke: norberarena ez den kultura bateko paziente edo familia bati ematen zaion jardun eraginkorra, pertsona edo familia horrek zehaztutako beharren arabera. Segurtasun kulturalaren ereduari jarraituz, pazientearen eskuduntza eta eskubidea litzateke bere hizkuntza beharrak zehaztea, batetik, eta bestetik bere beharrei erantzun egokia eman zaion edo ez egiaztatzea. Beste era batera esanda, osasun arretan gerta daitezkeen botere-harremanetan, nolabait, boterea erakundeetatik edo profesionaletatik pazientean kokatzea. Izan ere, botere-harremanak gakoak dira.

Hizkuntza-beharren ereduaren helburua kalitatezko osasun zerbitzuak eskaini eta ematea litzateke, ahalik eta osasun emaitzik hoberenak lortze aldera. Pertsonarengan ardazturiko osasun arretaren ereduarekin bat egiten du: pazienteen hizkuntza-beharrak antzematen ez badira esan daiteke ez dagoela pertsonarengan ardazturiko arretarik.

Hala eta guztiz ere, askotan gizarteak eta gobernuek zedarrizten dituzte legediak zein arauak, norbanakoaren beharren gainetik. Hau da; hizkuntza-beharrak, norbanakoaren eskuduntza eta eskubidea izan arren, botereak baldintzatuak izaten dira: egoera sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta politikoak. Hainbeste ezen paziente bera ere sarritan ez da kontzientea hizkuntza-beharrak dituenik. Halaber, hizkuntza norbanakoaren arlo pribatuari dagokion eta garrantzirik gabeko aldagaia da osasun langile askorentzat eta erakunderentzat. Egoera hori aztertzea izango da 'Hizkuntza eta osasuna VI: hizkuntza-beharrak' Uda Ikastaroaren helburua. Hizkuntza-beharrei Euskal Herrian eta nazioartean ematen zaion arreta (ematen baldin bazaio) eta erantzuna. Osasun-arloko langileei, ikasleei, ikertzaileei

hala nola, soziolinguistei, antropologoei, hizkuntzalariei eta hizkuntza-justizia zein eskubideen arloan interesa dutenei zuzenduta dago.

**Gako-hitzak:** hizkuntza-beharrak, hizkuntza-eskubideak, hizkuntza-politikak, hizkuntza-planak, ezarpena, ebaluaketa, botere-harremanak, segurtasun kulturala, pertsonengan ardazturiko arreta, justizia.

## Helburuak

Osasun langileentzat eta erakundeentzat hizkuntza norbanakoaren arlo pribatuari dagokion eta garrantzirik gabeko aldagaia ote den aztertzea.

Hizkuntza-beharrei Euskal Herrian eta nazioartean ematen zaien arreta (ematen baldin bazaio) eta erantzuna aztertzea.

## Lankidetzak



OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD



# Programa

## 2023-07-06

15:00 - 15:15	Erregistroa
15:15 - 15:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Aitor Montes Lasarte</b>   Osakidetza - Famili medikua <b>Jon Zarate Sesma</b>   UPV/EHU - Irakasle-ikertzailea
15:30 - 16:15	“Galesaren hizkuntza politika arreta soziosanitarioaren esparruan. Diskurtsoa eta errealitatea” <b>Cynog Prys</b>   Bangor University - Irakasle-ikertzailea
16:15 - 17:00	“Hizkuntza-eskubideen eta beharren arteko harremana. Beharrak dira helburua eta eskubideak metodoa” <b>Gerald Joseph Roche</b>   La Trobe University - Senior Research Fellow ( <b>Zoom bidez parte hartuko du</b> )
17:00 - 17:45	Atsedena
17:45 - 18:30	Mahai ingurua: “Hizkuntza-eskubideak ala hizkuntza-beharrak?” <b>Jon Zarate Sesma</b>   UPV/EHU - Irakasle-ikertzailea (Moderatzailea) <b>Arantza Lekuona</b>   Kabia - Gerentea <b>Joseba Fernández de Retana Corres</b>   Osakidetza - Pediatra
18:30 - 19:15	“Erizaintza eta medikuntza ikasleen eta irakasleen ibilbidea gutxiengo egoeran. Galesko esperientzia “ <b>Awen Iorweth</b>   Cardiff University - Irakasle-ikertzailea

## 2023-07-07

09:30 - 10:15	“Hizkuntza justizia eta gaitasunen eredua” <b>Nicole Marinaro</b>   Ulster University - Irakasle-ikertzailea
10:15 - 11:00	“Segurtasun Kulturalaren Esparrua “ <b>Elissa Elvidge</b>   University of Newcastle - Post-Doctoral Research Fellow ( <b>Zoom bidez parte hartuko du</b> )
11:00 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:30	“Ezgaitasun intelektuala duten Down sindromedun pazienteei kalitatezko osasun arreta euskalduna eskainiz “ <b>Miren Altuna Azkargorta</b>   CITA-Alzheimer Fundazioa - Mediku neurologoa
12:30 - 13:15	“Hizkuntza-justizia, hizkuntza-aniztasuna eta gizarteratzea “ <b>Cecilia Gialdini</b>   Ulster University - Posdoctoral research

---

13:15 - 13:45

Mahai ingurua: "Aniztasunean bat. Elkarrekin lan egiteko aukera"

**Jon Zarate Sesma** | UPV/EHU - Irakasle-ikertzailea (Moderatzailea)

**Ainhoa Oñatibia Astibia** | Gipuzkoako Farmazialarien Elkartea. FEUSE - Farmazialaria

**Miren Altuna Azkargorta** | CITA-Alzheimer Fundazioa - Mediku neurologoa

---

13:45 - 14:00

Sintesia

---

## Zuzendaritza



### **Jon Zarate Sesma**

UPV/EHU

---

Jon Zarate Sesma (Lekeitio, 1979) UPV/EHUko Farmazia eta Elikagaien Zientziak Saileko kide da. Farmazia Fakultateko irakaslea da eta Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea. Farmazian doktorea da (UPV/EHU, 2007) eta 2016ko osasun-arloko Koldo Mitxelena euskarazko tesi onenaren zuzendaria izan da. Azken urteetan gene terapiarako garraiatzaile ez-biralen garapenean ikertzen aritu da. Goi mailako nazioarteko ikerketa aldizkarietan 20 artikulutik gora dauzka argitaratuta eta euskarazko produkzioa zientifikoa ere nazioartekoaren parekoa dauka Ekaia edo Elhuyar bezalako aldizkarietan.



### **Aitor Montes Lasarte**

Osakidetza

---

Basaurin jaioa (1972), Euskal Herrian. Medikuntzan lizentziaduna UPV/EHU, 1999an. Familia medikuntzako espezialitatea burutu zuen 2004an, Galdakao-Usansoloko ospitalean (Euskal Herria). Gaur egun familia medikua da Aramaion, Debagoiena Erakunde Sanitario Integratuan (ESI), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan. OEEko (Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea) kidea. Euskal prentsan iritzi artikulua idazten ditu noizean behin. Hizkuntza eta osasungintzarekin zerikusia duten hamar bat argitaratu ditu aldizkari zientifikoetan, batik bat Osagaiz, BAT soziolinguistika aldizkarian eta International Journal of Integrated Care aldizkarian. Eskalatzaila, zenbait bide berri zabaldu eta argitaratu ditu prentsa espezializatuan.

## **Irakasleak**



### **Miren Altuna Azkargorta**

Fundación CITA-Alzheimer fundazioa

---



### **Elissa Elvidge**

---



### **Joseba Fernández de Retana Corres**

Osakidetza

---



### **Cecilia Gialdini**

---



**Awen Iorweth**

---



**Arantza Lekuona**

---

Nire ibilbide profesionalean euskararen erabilera eta kudeaketaren inguruko interesa izan dut, eta horren ondorioz, ahal izan dudan neurrian, Euskara Batzordeetan parte hartu dut eta hainbat ekintzen sustapenetan. KABIaren kasuan, erakundea 2015ean abian jarri zenetik bertako gerentea izan naiz, eta hasieratik bultzatu dut euskara kudeaketan txertatua egon dadin. Aurretik izan dudan esperientzia guztiak lagundu dit helburu hori bideratzen.



**Nicole Marinaro**

---



**Ainhoa Oñatibia Astibia**

---







**Gerald Joseph Roche**

---

# Matrikula prezioak

<b>AURREZ AURRE</b>	<b>2023-05-31 ARTE</b>	<b>2023-07-06 ARTE</b>
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	59,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa</a>	-	21,00 EUR
<a href="#">OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK</a>	-	0 EUR
<a href="#">O10 Gonbidapena</a>	-	0 EUR

<b>ONLINE ZUZENEAN</b>	<b>2023-05-31 ARTE</b>	<b>2023-07-06 ARTE</b>
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	59,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa</a>	-	21,00 EUR
<a href="#">OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK</a>	-	0 EUR
<a href="#">O10 Gonbidapena</a>	-	0 EUR

# **Kokalekua**

## **Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia